# FUNTSEZKO JARDUERAK

Hasteko, produkzio jarduera ezinbestekoa izango da gure enpresaren funtzionamendurako. Produkzio jarduerak modu eraginkor batean funtzionatzeko Nora Isturitz produkzio nagusia izendatu dugu. Lehenik eta behin beharrezko produktuen eskaera identifikatu dugu.

Ondoren, eskaerari erantziteko beharrezkoa diren baliabideak identifikatu ditugu:

- Funtsezko baliabide fisikoak
  - Makinak: josteko makinak
  - Instalazioak: alokatu denda bat
- Intelektualak
  Gure marka babesteko patente bat beharrezkoa dugu. Horrela, marka bat erregistratzeak eskubide esklusiboa emango digu hirugarrenek produktu berdinak merkaturatzea eragozteko.
- Giza baliabideak
  Gure produktuak sortzeko sormena beharrezkoa denez giza baliabidea gure enpresan oso garrantzitsua da.

Informazio hau kontuan hartuta enpresaren produkzioa merkatuaren eskaeraren menpe egongo da eta estrategia hori jarraituko du.

Hari beretik, lehen esan bezala hainbat arazo sortu daitezke eta jarraian arazo hauen konponbide posible bat azalduko dugu:

- Makinarien beharra plastikoa eraldatzeko →
- Langileen koordinazio falta produktuen kopurua handitzeko →
- Hornitzaileen ez betetzea →
- Markak eta patenteak erabiltzearekin lotutako arazoak. →
- Langileen eskaerak. →
- Bezeroen datuak modu okerrean kudeatzeagatik isunak. →
- Zerga isunak. →

Oro har, sareko jarduerak beharrezkoak dira gure enpresarentzako. Horretarako, web orri bat abiaraziko dugu eta Instagram kontu bat. Behin web orria eta instagram kontua egin ondoren gure kezka nagusia izango da hauen berritzea eta mantentzea. Horretarako, sare sozialetan aditua den pertsona bat jarriko dugu lanean.